Bizkaia
EGUAZTENA
euskaldunon Egunkaria
2002ko zezeilaren 13a

BIZKAIA: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo. 944104046 Faxa: 944103715 **DURANGO:** 656-790774 Publizitate lokala: 946202984 **GERNIKA:** 656-790777 **GETXO:** 656-790778 **ONDARROA:** 656-790775
Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114 Posta elektronikoa: bizkaia@egunkaria.com

Bigarren eskuko zabaltasuna

EKORROPA DENDEA. Zamudioko tratamendu zentroan berziklatutako arropea ipiniko dau salgai Berohik, merke, Bilboko Egaña kalean zabaldutako dendan



XOUSE SIMAL

DENDA SOLIDARIOA. Atzo zabaldutako dendan kalidade oneko arropea saltzen dabe, oso merke.

Hasier Rekondo | **BILBO**

Berohi irabazteko asmo bako kooperatibeak, Caritas eta Rezikletarekin alkarlanean, Ekorropa dendea zabaldu eban atzo, Bilboko Egaña kalean. Denda horretan salduko dituen bigarren eskuko arropek, modaren zurrunbilo zorotik kanpo edo merkealdiko lasterketa sukartsuetatik urrun, 45 urtetik gorako lanbakoen, etorkinen eta emakume baztertuen gizarteratze ametsak jantzi eta berotuko ditue.

Orain dala urte bi hasi zan Berohi erabili bako arropea barreskuratzeko prozesua lantzen; 17 lagunek dihardue gaur egun Zamudioko arropa tratamendu zentroan eta lurraldean sakabanatutako bost arropa dendetan. «Urte amaierarako 20 beharginetara, kooperatibista lez, ailegetea itxaroten dogu», adierazo dau Txema Rodriguezek, Berohiko gerenteak.

Jenteak etxeko armairuan gordetako arropa ahaztuaren bilketarekin hasten da prozesua. Getxo eta Leioako udalerrietan egin moduan, arropa jasoteko egokitutako edukiontzien bitartez eta herri zein ikastetxeetan (Ekologia Eskola kanpainean, Bilbon) egindako sentsibilizazino jarduerei esker, arropen aldaketa sasoietan bilketa kanpainak antolatu izan ditu Berohik.

Jasoten daben arropea —10.000 bat janzki inguru ipinten ditue salgai hilero— Zamudioko manipulazino zentrora eroaten dabe, bereiztu eta sailkatzeko. «Ondo garbitu, sailkatu eta berziklau ostean, etiketarik bako kalidadezko arropa lortzen dogu», ganeratu dau Rodriguezek.

Arropearen irudi markea

Ekorropa irudi marka bereizgarrian bateratzen dabe gero dendetan salgai ipiniko daben arropea, «ingurumena errespetetan dauan prozesua da».

Era berean, prozesutik sortzen diran beste produktuei be ateratzen deutse errentagarritasuna: garbiketa industrialerako zapiak, ehunaren berziklajea edo garatzen dagozan herrialdeen lankidetza proiektuak babesteko, besteak beste.

Berreskuratutako ehunak jaso, sailkatu eta saltzeak onurak besterik ez ditu bermatzen alkartasun mezua arrotz egiten jakon gizarteari: ingurumenaren orekea lortzen laguntzeaz ganera, kontserbazinoaren aldeko jarrerak sustatzen dira eta lehengaien kontsumoa asko murriztu. «Ingurumenarekiko benetako konpromisoa bereganatu behar dogu», azpimarratu dau Rodriguezek.

Bilbo erdian zabaldu barri daben dendan, Galdakao, Durango, Basauri eta Ermukoan modura, salneurri merkeenetan erosi leiteke berziklatutako arropea: 500 pezetatik 2.000 bitarteko prezio aurkitu leitekez. «Salneurriok ez dabe kalidade eskaseko arropea saltzen dogunik adierazoten; kontsumo zentzuduna sustatzen dogu». Zentzuzko kontsumo honetatik lortutako etekinak enpleguak sortzen erabilten ditue kooperatibistek, pertsonak gizarte eta lan mundura sartzeko enpresak sartzeko jarduera orokorraren barruan.«Guretzat oso inportantea da herritarren kontzientziazinoa maila, gizarte bazterketearen aurkako borrokan konpromisoa hartu daian».

TXEMA RODRIGUEZ | BEROHIKO GERENTEA

«Londresen modura, aukerako arropea normaltasunez erosi beharko litzateke»

H. R. | **BILBO**

Bilboko Ekorropa denda zabaldu baino ordu batzuk lehenago alkarrizketatu dogu, lanpetuta bezain itxaropentsu, Berohiko gerentea.

■ Ze arropa mota salduko dozue Bilboko dendan?

Bigarren eskukoa baina kalidade onekoa. Bilboko dendea gure sare barruko erreferentzia eta ikur bihurtzea gura dogu.

■ Ze helburu orokorrekin sortu zan Berohi?

Irabazteko asmo bako kooperatiba modura sortu ginan, 2000ko maiatzean. Bilboko Caritas eta Rezikleta erakundeekin batera, enplegu sustatzeko ekimena ipini genduan martxan. Gizarte eta ingurumen arloak jorratzen ditugu. Ezkutuko ekonomiara lotutako ehungintza arloko produktuak zabortegietara bota ez daitezan, berreskuratze prozesuan esku hartzen dogu.

■ Ze erizpide erabilten dozue Zamudioko tratamendu zentroan?

Ehunaren kalidadearen arabera sailkatu ostean, higienezau beharra izaten dabe. Ekorropa markearen bitartez, arropa garbia eta hausdurarik bakoa eskaintzen dogu. Ostean, etiketa ipini eta dendetara bialtzen dogu.

■ Kalidadearen eta salneurrien arteko erlazinoari ze garrantzi emoten deutsozue?

Produktuen salneurri-kalidade erlazinoa ona dala uste dogu, bezeroentzako erakargarri bihurtzeko bestekoa. Salneurriak merketzerakoan, enplegu sustaspena izaten dogu gogoan.

ENPLEGUA

> «Salneurriak merketzerakoan, enplegua sustatzea izaten dogu gogoan»

■ Bigarren eskuko arropea erosteko ohiturea ez dago oso zabalduta Euskal Herrian; zer egin leiteke joera hori aldatzeko?

Beste edozein dendak eskainitakoa eskaintzen dogu, giro erakargarria sortu dogu argiztapen egokia erabilita. Egia da arropa honi ez jakola nahiko baliorik emoten; Londreserako bidaietan modura aukerako arropea normaltasunez erosi beharko litzateke».